

## KARL RAHNER

(Omenez)

### I. Bizitza

1984 garreneko epaillaren 30'an il zan Karl Rahner. Gizaldi onetako teologorik aundienetariko au Freiburg im Breisgau urian (Alemani'n) jaio zan 1904 garreneko epaillaren 5'an. Zazpi nebarreba ziran, eta oneek aurrera atarateko, euren ikasketa ta guzti, eskola-irakaslea zan Karl aitak eta Luise amak, lanpetuta, naiko ardurarik izan eben. Orregaitik edo «ez egoan ez gogorik ez astirik abia berotzen egoteko. Berez egoana zan ori. Ez dot niganako aparteko samurtasunik gogoratzen nire gurasoakan» (*Karl Rahner. Erinnerungen*, Freiburg im Br. 1984, 30 or.). 18 urte eukazala jesuita sartu zan. Zegaitik, «neuk be ez dakit azken-azkenean». «Gaztearoan sentipen-berotasuna izaten da; zaartuten garanean beste esperientzi-atmosfera bat zabaltzen da. Leen baiño argiago ikusten dira giza-eskastasunak Orden baten be eta bere kondairan. Baiña, olan ta be, pozik nago neure bizitzea olako bizikera eta olako egikizun baten igaro dodalako» (*Karl Rahner. Bekenntnisse*, München 1984, 49-50 or.). «Gaztetan ze errazoi egon zan, ez dakit orain onezkero, eta zetan jakiñik be ez dago. Azkenean Jaungoiko ulerteziña badala daki-gu bakarrik, maitasun eta zentzuntzat siñestu ta artzen doguna, eta esan daikeoguna: Jauna, erruki nigaz pekatari onegaz» (bertan, 53 or.).

Filosofi ta teologi ikasketak Ordeneko ikastetxeetan osotu ebazan (filosofia 1924-27 Feldkirch'en eta Pullach'en; teologia 1929-33 Valkenburg'en, Holanda'n). Ordurako filosofi-kondaira irakasteko aukeratua izan zan ezkerro, beste urte bitan ekin eutson filosofia ikasteari Freiburg'eko unibersidadean (1934-36). Maixutza idazkia Martin Honecker'en zuzendaritzapean gertu eban, baiña azkenean irakasle neoeskolastiku onek ez eutson onartu. Lan onetan Rahner'ek Santo Tomas'en ezaguera-irakatsiak teori modernoakaz, batez be Heidegger'enakaz, alkartu nai izan ebazan. Honecker neoeskolastikuak ori eziñezkotzat eukan, eta Rahner'en lana, bere ustez Heidegger'engan larregi oiñarritua, sustraitik okertzat epaitu eban. Ori bai, Rahner'en zaletasuna ikastaldi aretan, Heidegger'en eskoletan egoan (*Erinnerungen*, 43-45). Heidegger'ek ez eutson berarizko gai konkretorik irakatsi, alan be; ez filosofian eta ez teologian. «Pentsau nai izatea, pentsau aal izatea» ikasi eban batez be beragan (*Karl Rahner Im Gespräch*, München 1983, II, 151 or.). Eta testoak barriro irakurten, testoai barrurago itaunduten, filosofo baten esaldien arteko alkartasuna ikusten (*Erinnerungen*, 47).

Bitartean, baiña, teologia irakasteko izendatua izan zan. Orretarako teologi-maixutza lorten dau Innsbruck'en, Eliz-gurasoen saillako ikerketa batez (1936-37).

Jarraian teologi-irakasle da Naziak 1938'garrenean Austrian sartu ziranean, Innsbruck'etik bota egin ebezan jesuitak, eta Rahner'ek Viena'n jarraitu eban irakasle eta beste lan batzuetan zeregintsu (1939-44). 1944'garrenetik 1945'garrenera arima-zain Mariakirche errian (Bayern). Gerra ostean, 1945-48, irakasle Pullach'en, Ordeneko ikastetxean. Gero Innsbruck'en jarraitu eban luzaro. Bearbada emen izan zitun urterik aberatsenak, emoituenak, olako aldi berezirik markatu aal bada bere bizitza oparotsuan; baiña, beintzat, esan lei urte oneetan eldu zala bere betera, bere pentsakera tinko ta originalera; geroko frutu ugariak aldi onen jarraipena ta zabalpena izango dira.

Kontzilio aurreko urteetan, bere idea batzuk barriak eta arriskutsuak zirudielako, artu-emon pizkat zaillak be izan zitun Eliz-

agintari batzukaz Leenengo, Ordeneko eritxi-emoille baten eritxiagaitik ez zan argitaratu bere Andra Mariaren Jasokundeari buruzko liburua (gero, baiña, ez eban orregaitik miñik: bitartean liburua zaartu egin zalako, eta gai orretaz beste leku batzuetan idatzi izan daualako); gai bateri edo besteari buruz berba egiteko eta idazteko debekua (batez be alkar mezari buruz); azkenez, idazkiak argitara aurretik, Erromako aparteko baimenaren bearra. Berak, orretarakoan, erabagita eukan ez idazterik. Bein Ottaviani Kardenalak adiskitsu esan eutson: «ez daukagu Erroma'n ezer zure kontra, txarto ulertzen dautsuen zure lagunakandik defendidu nai zinduguzan; pribilegio bat da». Eta berak erantzun: «Ez dot pribilegio ori nai». Baiña egitez oar oneek ez eben izan ezetariko eragiñik bere bizitzan. Atan Kontzilioa eldu zan. Dana dala, berak garrantzi gitxi emoten dautse olako gauzai (*Bekennnisse*, 22-26). Olako arazoak ez eben ikutu bere sakoneko Eleizeaganago leialtasuna: «Zegaitik oindiño Elizan geratzen nazen barriketak tripako miña emoten daust. Katoliku ez dan batek itaundu lei olan, edo katoliku liberal batek, kasualidadez bakarrik Eliza katolikuan jαιο eta parroko katolikuak, besteen ordez, zainduak, baiña ezelan be kristau eliztarra ez danak. Benetako katoliku eta apaiz batek ezin lei olan itaundu». (*Bekennnisse* 44).

Kontziliora Viena'ko König Kardenalak eroan eban bere teologo onularitzat. Kontzilioko peritoea izan zan. Beste batzuk bere eragiña Kontzilioan andia izan zala uste izan arren, berak ezetz erantzuten dau. Bera ainbesteren artean, mundu baten erdian, garao bat baiño ez zala (*Erinnerungen*, 89 urr.). Alan be, Rahner'en eragiña ez da Kontzilioan bertan bakarrik ikusi bear. Ainbat aurrezagotik dator ori. Jakiña da gerra bien artean idazlari ta pentsalari aize-barri ekarleak izan zirala Alemani'n: esate baterako, K. Adam, R. Guardini, E. Przywarra, P. Lippert. Berrogeigarrenetik irurogeigarrenera asi zan teologian aldaketarik zabalena. Ezagunak dira Frantziko teologo batzuk: Lubac, Daniélou, Chenu, Congar; aleman izkuntza lurretan Rahner bera eta Von Balthasar; bitarte orretan, baiña geroago, beste batzuk be bai. Bearbada eragiñik sakonena Rahner'ena izan da. Kontzilioak, zati baten beintzat, onartu egin eban aurrelari oneen lana.

1964-67 erlegiño-filosofi irakasle izan zan München'eko unibersidadean; 1967 garrenetik aurrera teologi irakasle barriro Münster'en. 1971 garrenean zarsaritu zan; alan be deduzko irakasle lez jarraitu eban irakasten München'en eta Innsbruck'en. 1964 garrenean artu eban lenengo deduzko maitxutza eta gero olango 15 inguru artu izan ditu, eta gaiñera ogeiren bat erakunderen medailla edo beste dedu-izendatze. Azkenerarte jarraitu dau lanean bizi ta zoli, itzaldiak emoten eta idazten, gaurko egoerak fedeari aurkezten dautsozan itaunak gogoan dituala. «Bai, lenengo mundu-gerrea bizi izan dot, bigarrena be bai; gura ba'dozu, kanpora bota ninduen. Azkenengo gerra-urtean ez neukan jateko askorik, eta abar. Olan ba, alderdi batetik, aldi ori igaro izan daben persona normalen artekoa naz. Baiña beste alde batetik, euren aldiko larritasunik gogorrenetatik libre geratu diranen artekoa naz» (*Erinnerungen*, 62-3). Izakeraz patzientzi gitxikoa ei zan eta sumintsua. Baiña gerrialdian ezeze, bizitzan zear pobreaki ixillean laguntzea eta geixoei serbitzu txikiak egitea maite ebana. Izan be, geroago ta obeto ikusi eban Jainko-maitasuna ta lagun-urkoaren maitasuna bat etozala edo, ondo ulertuta, bat zirala.

Bere aro elduan, bizitza ta giza-destinoari buruz olako ezetizismo edo distantzi neurritzko bat eta, batera, fede adoretsua nabaritzen dira. «Gauregun berba asko egiten da zentzuna, bizitza-betetzea ta norberarealizazinoa dala-ta. Azkenean, baiña, zati baten, bizitzako betetze guztietan utsa aurkitzen da. Olan, ez dago zentzun-betetzetik Jainko ulertezinauren aurrean jaustean baiña» (*Bekanntnisse*, 50). Bizitza nekagarria. Kondaira izugarria. Giza-fede ta adimen mundua be illuna. Alan be fede adoretsuz erantzun izan dau beti Rahner'ek. «Adorea» sarri darabillan itza da eta benetako fedearen agergerri. Bai bakotxagan eta bai Elizan eta gizartean pentsakera ta bizikera alper-ezekorrak astindu nai izan ditu beti fedearen indarrak.

## II. Lanak

K. Rahner'en lanbidea asikeratik irakaskintza izan zan. Eta

oneri lotura, idaztea eta itzaldiak eukitea. Batez be bere sasoirik elduenean, idaztea izan dau irakaskintza biderik zabalena. Teologi ta filosofi gaiak aztertu izan ditu. Teologi barruan kondaira ikerketa zeatzak be egin izan ditu eta teologi pastoralaz eta espiritualaz be arduratua izan da. Baiña batez be sistematikua, dogmatika-pentsalaria da. Onetan filosofiaz berez eta eurrez baliatu izan da. Bere pentsakeran be alan izan bear eban. Eta, dogmatika sailako ia gai guztiak aztertu izan dituan arren, esan lei batez be bere kristau fedea pentsau dauan filosofoa izan dala. Baiña pentsatze ori fede barruan ezeze fede barrutik egin dauanez (*fedeak eskeiñitako gaiak aztertuz*) teologoa izan da.

Bere lanik aundienak edo garrantzitsuenak aipatuko doguz. 1939'garrenean argitara eban «*Espiritua munduan*» (ere filosofi-maixutza lana, M. Honecker neoeskolastikuak onartu ez eutsona; bere libururik garrantzitsuenetarikoa). 1941'garrenean «*Berbearen entzuleak*»; erlegiño-filosofiar buruzkoa. 1954'garrenean urten eban «*Teologi-idaztiak*» bildumaren lenengo alea; 16'garrenak aurtan, 1984'garrenean, urten dau. Bilduma onetan batu ditu bere itzaldi, artikulu ta beste orretariko lanak. Bere beste liburuetan azaltzen diran gaiak bilduma eskerga onetan be agertzen dira. Orregaitik lanik zabalena ezeze, karakteristikoena be bada. 1957'garrenetik aurrera «*Teologi eta Eleiza Iztegia*» lan aundiaren 2. argitalpenaren ardurakide (14 ale); urte beretan asi zan «*Quaestiones disputatae*» sailla. 1961'garrenean «*Teologi Iztegi txikia*» agertzen da. 1964'garrenetik aurrera «*Pastoral-Teologi Eskuliburu*»ren arduradun. 1969'garrenan «*Sacramentum Mundi*» enziklopediaren ardurakide. 1976'garrenean «*Fedeazko Oinarrri Ikastaldia*» atara eban. Bere pentsakerarik sakonenaren sintesia, laburpena. Rahner'ek orain arte berarizko gaiak, partikularrak, ikertu izan ditu; ez dau sistema osorik azaldu. Liburu au be ez da sistema osorik, ez bere lan eta pentsakera guztiaren aldean eta ez bere asmutan. Baiña, osoa izan ez da be, Rahner'en pentsakeraren sistema dala esan geinke, sistema laburra.

Beste liburu asko argitaratu ditu (ez aztutekoak, esate baterako, S. Inñazoren Ejerzizioei buruz liburu bi, edo ta «*Omünizaziño-problema*», «*Eleizaren egitura-aldakuntza*» eta «*Zer siñistu bear dogu oin-*

diño?)). Izenik ospetsuenak baiño ez doguz izandatu. Bere lanen titulua, (jakiña, geien-geienak artikulua, gero liburuetan batuak) 4.000 inguru dira. Orrezaz gaiñera, bere alkarrizketak (telebistan naiz irratian naiz itzaldi ostean) kontuan eukitekoak dira; batzuk argitaratuta daukaguz.

1965 garrean, alkarrizketa baten, (ordurik ona, baiña, lotu barik idatzi izan dau), olan erantzun eban: «Nik ez dot iñondik be askorik idatzi, Santo Tomas'en, Suarez'en eta beste batzuen lanak begiratu ezker. Ez daukat aparteko metodorik. Jesarri eta idatzi egiten dot bakarrik. Egun batzuetan ez dot ezer be idazten» (*Gespräch I*, 29). Berez «atsedenzale ta alperra» zala be esan eban; eta orrexegaitik enkargu ta eginkizun asko artzen ebazala eta olan ikasi ebalai nai-ta nai-ez bear egiten (*Bekennnisse*, 85).

### III. Bere pentsakera ta lanaren bereizgarri batzuk

Berba gitxitan ezin daiteke bere teologi osoaren muiña sartu. Alan be, bereizgarri aundiak, gure ustez sakonenak eta eragilleenak, izendatu geinkez.

-1. Rahner'ek teologian askatasunez eta leialtasunez jokatu izan dau. Askatasuna bere Ordeneko eta Eleiza guztiko agintarien aurrean. Au baiña, gogoragarri izan arren, ez da teologi eta pentsamentu aldetik ain garrantzitsua. Fedearen beraren, dotriñaren edo dogmaren aurreko askatasuna da bere irabazirik aundiena ogeigarren gizaldi onetan. Jakiña, esan dodan lez, askatasun ori leialtasunagaz batera erabili izan dau. Eta fededunarentzat askatasun leiala izan daiteke bakarrik onuragarria. Adimenaskatasuna da berea. Baiña fedearen barruan ikertzen eta itauntzen dauan ezker, fedegaganako askatasun leiala da. Beste batzuk be bere aurretik eta bere ondoan orretan eragiña izan arren, iñok baiño geiago egin dau, bai Kontzilio aurretik eta Kontzilio ondoren, gogo-askatasun giroa Eleizan sortzen eta zabaltzen.

Fede-irakatsia onarturik, bere asikerako itauna au zan: zer da au benetan? Zer esan gura dau azken baten? Itaun au egiteko eskubidea alderdi bitatik etorkion: Jaungoiko-egien aunditasun esi-eziñatik eta gizonaren beraren izakeratik. Ez da naiko betiko

berbak barriro esatea, beti be berba orreek aurrean euki bearrekoak izan arren. Barriro ulertu bear dira eurak norantz señalatzzen daben begituz. Auxe da, ain zuzen be, esan gura dogun fede aurreko edo fede barruko askatasuna: berba materialetatik aske ikustea; berba orreen atzean, edo arago, fede-egia billatze-ko ta artze-ko askatasuna. Eta au, jakiña, Eleizearen irakatsietan azken-irakatsiak eta bestetariko oizko irakatsiak bereiztu ondoren. Azken-irakatsiak ez diranetan, beste era bateko askatasuna erabili izan dau. Baiña aipaturiko adimen-askatasuna azken-irakatsietan eurretan erakutsi eban. Azken-irakatsia, naiz ta alderdi batetik azkena izan, ez da alde guztietatik azkena, ez da itaun eta billatze guztien azkena. Eta au, lenengo ta bein, fede-egiaren beraren aunditasun zarratu-eziñagaitik.

-2. Billatze eta askatasun orren beste errazoa gizonagan datza. Emen au azpimarratu gura dogu aparteko eraz: Jaungoikoaren berbea eta bere barru-bizia emotea gizonarentzat dira; baiña benetan gizonarentzat izateko, bere barrutikoak izan bear dabe, eta ez, utsik, kanpotik izakera neutro ta indiferentera datozenak. Gizonagan aurkitu bear dira goi-agerkundearen baldintzak, edo berez, bere izatez, daukazanak, edo, graziz emonak izan arren, egitez eta istorikoki bere izatea erutzen dabenak. Au da itz gogor ta gatxaz «teologi trazendentala» esaten dana. Itz onen esangura ta erabilkera onek Kant'egan dauka iturburua, eta Rahner'ek Joseph Maréchal filosofoaren eskutik artu eban. Kant'en aipamena egitean, jakiña, itzaren erabilkera gaiñetikoa, oso generala baiño ez dogu gogoan. Egitez Rahner'en arazoa eta benetako erabilkera diferenteak dira. Rahner'en arazoa au da: Jainko-agerkundera, osoan eta atal berezietan, ez da gizonarentzat kanpoko zer bat, berak bere egitezko izakeraz eskatzen dauana baiño.

-3. Izakera au, besteak beste, istorikoa da. Istorikoa esatean, gorputz eta mundutar eta gizartearra dala be esan gura da. Baiña guzti orretan alditasuna eta aldakortasuna azpimarratzen dira aparteko eraz. Gizona, bai gizaki danez eta bai gizadi danez, ibillean, aldakuntzan dator bere izatera. Gizona (eta, azken baten,

gaurko gizona) euki bear da kontuan; bere istorikotasunak Jaungoikoaren doaia baldintzatzen dau; Jaungoikoaren goi-agerkundera, egitezko gizonagana etorrenez, istorikotasun onetara egokitu zan, bere goi-agerkunde ori istorikotuz. Goi-agerkunderaren istorikotze ori ez zan bein ta betiko jazo: gero ta orain be istori barruan, bere goraberetan jarraitzen dau. Gaurko gizonak bere benetako bearrianetatik, bere gaurko ezaguera-aalmenetik artzen dau goi-agerkundera, eta olan datorkio benetan Jaunaren Berbea eta doaia. Au ez da izan Rahner'entzat printzipio abstrakto eta eraginbako bat, teologi gaiak barriro ulertzean berez erabili izan dauana baiño. Olan azaldu izan ditu, esate baterako, Kristologia, sakramentuen sorrera ta jatorria, gizadi guztiarentzako grazia, Bibliaren Jainko-autoridadea. Ikusten dan lez, istorikotasun au leen aipatu dogun «teologi trazendentaren» alderdi oso garrantzitsua da. Emen aipatutako «trazendentzi» itzaren ondoan, jakiña, badarabil Rahner'ek itz ori bere esangura klasikuan: Jaungoikoaren «trazendentzia» dala ta eta gizonaren trazendentzia dala-ta (gizona bere sustrai-izatez zer mugatu guztiak baiño arago doala, mugagabera, Jaungoikoagana zuzendua dala).

Gizonagan olan bere teologi asikera puntua jarri dualako, gizonagan geratzen dala edo antropozentrikua dala bota izan dautsoe Rahner'eri. Ondo ulertu ezkeru, onartu eikean egilleak ori: Beretzat gizonaren erdian Jaungoikoa dagoan ezkeru, azken baten antropozentrismoa ta teozentrismoa gauza bera dira. Baiña ez Jaungoikoaren izena aaztuteko edo baztertzeke: baso eskerge dirudian bere lan osoan ezer badiño, Jaungoikoaren izena da. Gai onetzaz itaun bat egin eutsoenen baten olan erantzun eban: «Nik, au diñoan teologoa izan gura neuke: *Jaungoikoa* dala garrantzitsuena, eta gu onetarako garala: geu aaztuz bera maitatzeko, bera gurtzeko, beretzat izateko, geure izatetik Jaungoikoaren ulerteziñaren leizara saltu egiteko» (*Gespräch II*, 166).

-4. Rahner'ek gaurko gizonaren bearrianai erantzuteko, fedearen eta pentsamentuaren sustraietara jo dau beti bere jokera lez. Eta au bai gai berezietan eta bai gai zabalagoetan eta fede-



mundu guztiaren aurrean. Lenengo ta bein, errealdadearen zertasunera, esentziara, jo gura izan dau beti. Ori egikeran fedeko egiak edo errealdadeak alkarregaz dauken loturea ikusi nai izan dau. Eta orrela fede-mundu guztiak beragan daukan zentzuna eta gizonarentzat, onen munduaren eta pentsakera-zelaiaren erdian, daukan zentzuna. Orregaitik, fede-mundu osoa eta gizonaren azken egoera osoa barriro pentsatu ditualako, benetako pentsalaria da. Esandakoaz «sistematikoa» dala be esan dogu. Ez, jakiña, betiko eta danetarako erantzunakaz, egi-sare sendo ikutuziña eratu daualako edo. Baiña bai fede-mundu osoa pentsatu daualako eta onetan egi berezien alkar lotura eta ituburua billatu daualako. «Teologiak guztiz berez Jaungoikoak agertu ditun egien barne-loturea ezagutzera eldu gura dau. Irakatsi bakotxa ezin leiteke zuzen ulertu danaren kontestoa ikusi ezik» (*Gespräch I*, 37). Onek ez dau esan nai artifizial itxurazko logikaren bidez egi barriak ataraten ibilli leitekenik. «Olan ta guztiz be, ori teologi espekulatiboa da, barne-printzipio simple bat billatzen dau eta onen bidez dogma-idea guztien batasuna ikusi» (*Ib.* 38). Orregaitik ezin leike teologian «ez naikorik, eta ez naiko indartsu ta naiko adoretzu ta zorrotz pentsatu; eta oneri «razionala» esan gura ba'jako, orduan, konforme, nire teologia razionala da. Nik au esango neuke: teologi katolikuak Jaungoiko ulerteziñaren teologia izan gura ba'dau, jakiña misterioa onartu bear dauana. Baiña, nire ustez, teologi tradizionalak, ez gitxitan, geiago pentsatu eitekean eta egin bear zanetan, esan dau: emen misterioa asten da, eta sarriegi teologi-gai partikularretan errez misterio antzeko bat ipiñi dau; baiña teologiaren benetako misterio-izakerak teologia bera Jaungoikoaren dana barruan artzen dauan misterio bakarrera eroan bear leuke (*Erinnerungen*, 60-61).

Metodo au, edo pentsakera au, bere idazki beintzat garrantzitsu guztietan erabilli dau. Baiña bere filosofi ta teologi pentsamentuaren muiña eta sistema agiria «Fedezko Oinarririkastaldia» liburuan erakutsi dau. Ez ditu inondik be bere beste idazkiak alperriko biurtzen; oncetan inoz alderdi istorikuak lantzen dira, baiña geien-geien baten gai bakotxa zabalago ta askoz zeatzago. Baiña bere pentsamentu eldua ta onen batasuna ikus-

teko liburu apartekoa da.

Rahner'egan batasun au billatzea, eta orrela fede-mundu osoa azken-egi gitxitara eroatea griña bat zan. Orregaitik orain aipaturiko liburu azkenean aalegin batzuk egiten ditu fedemiami guztia berba gitzitan emoteko. Izan be, ia «esaldi pare bitan esan aal bear litzake kristautasunaren muiña zer dan» (*Erinnerungen*, 65).

-5. Rahner'en lan osoan arnasa andi bat asmatzen da: itxaropen eta baiezkortasunaren arnasea. Ez da bera buruberoa eta jazoera ta idea batzuen aurrean suak errezegegi artzen dauzanetariakoa. Ez dauka entusiasmua larregirik ez gizon bakotxagan ez istoriaren etorkizunean. Neurritzko urrintasunez ta erlatibismoz daki personak, jazoerak eta ideak ikusten. Alan be, leen esandako adimen-askatasuna bera be itxaropen baiezkor-sortzaille biurtzen da. Baiña, batez be, berea baiezkortasun teologikoa da; Jaungoikoaren misterioan bertan oiñarritzen dan itxaropena. Olako gogo-aunditasun eta zabaltasuna asmatzen dira bere idazkietan. Batzuen eritxiz, bearbada lar goitik eta egazka. Baiña giza-buruauste, arazo ta miseriak begiratzen ekian berak, fedeko eta adimeneko une illun eta larrietan begiak jarten.

Baiezkortasun orren alderdi bat da, esate baterako, bere «kristau anonimuai» buruzko irakatsia. Gizon guztiak, borondate onez euren kontzientziko Jaunaren deia jarraitzean, Kristoren graziaren barruan bizi dirala eta beraz, jakin barik, «kristauak» dirala (izena es da emen auzia, errealdadea baiño: Kristoren grazian, errukian, adiskidetasunean, bizi diran ala ez) (ikusai gai onetzaz Vaticano Contzilio II garrenak onartutako dotriña: LG 22; *Ad Gentes* 7; *Nostra Aetate* 1). Baiña, geiago dana, munduko pekatu guztiaren aurrean be itxaropenak urtetan dau garaille. «Olan ta guztiz be, gizadia nai erri bat ondamendi baten jausiko balitz, nik oindiño uste sendoa eukiko neuke -eta eukiten jarraitzeko itxaropena dot- olako ondamendia ere beti be azkenez Jaungoiko amaibako onaren, amaibako aaltuaren eskuetan amaitzen dala» (*Erinnerungen*, 126). Itxaropen onek ez dau gure erantzukizuna kentzen. Ondamendia berez benetako arriskua da.

Gizonak berez aukeratu leiken azken elburua. Baiña, arago, oin-diño, Jaungoikoaren mugagabetasun ulertezinëan oiñarritzen dan itxaropena zabaltzen da.

Bere lanaren asmua ta mamiña au litzake: «Gizona beti ta edonon eta aldi guztietan, jakin naiz ez jakin, pentsau naiz ez pentsau, esan-eziñezko bere bizitzako misteriora zuzendua dala, Jaungoiko izenez deitzen doguna, eta Jesus illari ta berbiztuari begira, bere bizitzeaz orain eta eriotzaren ondoren ain zuzen Jaungoiko orrengana, bere elburura lez, elduko danaren itxaropena izan daikeala («*Gespräch I*, 301).

Rahner'en lanari ogeigarren gizaldiko istori-ikuspegitik begiratzean, au ikusten dogu: emeretzigarren gizaldi azkenean eta gure gizadi onen asikera Modernismu teologiku mobimentua izan zan: pentsakera barriari, jakintzak sortutako itaunai, Bibliak aurkezten ebazan itaunai, gizarte arazoai erantzuteko sortu zan mobimentu ori. Baiña azken baten, eta benetako modernistakan, Eleizearen dogma tinkoa eta goi-agerkunde objetiboa desegiten ziran. Orregaitik Eleizeak ukatu egin eban Modernismu teologiku au «Lamentabili» dekretua, «Pascendi» enziklika). Baiña ez dokumentu oneek eta ez jarraian artutako erabagiak eta jokerak ez eutsen ezetariko erantzunik eskintzen aipaturiko arazoai. Eta une baten erantzuten leiatzeko bideak be zarratuta lez geratu ziran. Esate baterako, R. Guardini, Eliza barriztapenean garrantzitsua, erlegiño-filosofian, liturgian, eta kristau fedea kultura-testoakaz alkartzen aalegindu zan beti, baiña esandako arazoetan ez zan sartu. Teologi maillan zubitzat E. Przywara euki bear dogu (ain zuzen be, gatzetarik, bera izan zan Newman'en lanak Alamenin ezagutarazo ebazana: modernistak euren alde aipatu izan eben Newman eta orregaitik susmo txarrekoa zan integristen artean).

Rahner'egan nai-ta nai-ez urten bear izan dabe, naiz ta beste era batera, Modernismu aldiko teologi arazoak (eta, jakiña, beste arazo teologiku partikular askok). Baiña Rahner'ek, desegin barik, lotu egiten ditu aurreko oiñarri biak: dogma benetan onartu eta batera barriro azaldu, ulertu; goi-agerkundearen

«manentzia» (gizonagandikoa izatea) «trazendentziagaz» (benetan Jaungoikoagankioa izateagaz) alkartu. Rahner'en lana, osorik artuz, apologetikua eta dogmatikua izan da batera: fedea azaldu ta ulertu, eta era berean, osorik eriaz alderdi berezietan, adimena- ren aurrean garbitu, errazoitu.

Fedea asmatu egin ez dau anez, olan azaldu eban bein bere lana: «Nik ez dot ezer barririk esan teologian, beti esan dana bai- ño ez, eta nik au oindiño neure teologiaren alderako positibotzat artuko neuke eta ez ezela: be eritxi negatibotzat, eta, esan lei, teologi osoak -nigan be bai, ez bakarrik nigan- arpegi barria artu dauala» (*Erinnerungen*, 62).

Gaurko (eta betiko) gizonaren itaunai ur egon jaken teolo- go au konbenziduta egoan «askatasun-teologia» bearrezkoa za- naz. Izan be, bere printzipioetatik eta au da, giza-maitasunean Jainko-maitasuna lortzen dala, eta gizona gizarte dala, askatasun teologi edo teologi politikuak urten bear. Alan be, berak au au- tortzen dau: «Autortzen dot ni neu Europako azken- individualismoko teologoa izan nazala». Eta Latino-Amerikan gizarte-esperientzi berezitik sorturiko teologia azten bada, poz- garria baiño ez beretzat (*Gerpräch II*, 67). Bere teologi-lanean asi bear ba'leu, «alderdi batetik, Jainko ta urko-maitasunaren bata- suna sustraitikoago landu bear litzakela esango neuke, askoz ar- giago agertu bearko litzakela kristautasunak eta Eleizeak gizar- tean benetako eginkizun politiku jatorra daukela. Baiña, beste alderdi batetik, bearbada oindiño geiago azpimarratuko neuke: gizona benetan Jaungoikoaren misterio absolutoaren aurrean zabalik dagoanean, berari konfiantzaz emoten jakonean, adora- ten, maitatzen, etorkizunaren aurrean itxaropentsu, Jesukristo il eta berbiztuari begira, orduan daukagula h: karrrik kristautasuna; Jaungoiko biziaren kristautasun adoratzaille onen orde ezin dai- tekela sartu ezta umanismu sozialpolitiku errespeta-garririk be» (*Gespräch II*, 69).

Moral gaietan, printzipio ta idea sakon garrantzitsu batzuk azaldu izan arren, erabagi zuzen konkretorik ez dau geien baten artu. Zer egin leiken, edo fedearen kontra ez legokena eta ola-

koak esan bai (eta esker onez artzekoak dira eritxi orrek be), baiña, gero, erabagi argi ta garbi konkretorik asko ez. Egia ez da ez zala au bere arloa. Baiña arlo ain zabala izan dauan teologoa-gan arritzekoa da, apur bat beintzat, muga au. Jakiña, dogmatika-gaietan be gauza asko geratzen dira zabalik (eta zabalik geratze ori Rahner'en meritu bat be bada, alderdi batetik). Pentsalari zabal-sakonak, ainbeste itaunen aurrean, zabalik geratu bearra eta dau ba? Zenbat eta argiago, illunago? Alan be, bere eritxi moral batzuk askatzailleak eta aldatzailleak litzakez.

Eleiza-aparato guztia, Aita Santuagandik asi ta beste elizgizon guztiak, eta eleizak, Kontzilioak, sakramentuak eta dana «siñismen, itxaropen eta maitasun apur bat gizonen biotzetan sortzeko da» (*Gespräch II*, 177). Au da garrantzitsua, eta elburua, beste guztia bidea baiño ez. Eta orregaitik, bere ustez, ez dau berak teologia teologi-maitasunagaitik landu, pastoral eta kristau-bizitza zerbitzurako baiño (*Gespräch II*, 52-54).

Bearbada larregi idaztera edo berba egitera beartua izan dan pentsalari onek Jaungoikoaren misterioari dagokion ixiltasunaz be sarri egiten dau berba. «Nik askotan eta era askotako gauzak esan dodaz. Alan be, zuk edo beste batek nigandik entzun gura leukezan asko aaztu edo esan barik itzi. Ez dodaz aipatu nai esandakoak baizen ondo zerbait azaldu eitekezan gaiak. Baiña, dana dala, azkena ixiltasuna litzake, Jaungoikoaren aintzabestia dan ixiltasuna» (*Ignativus von Loyola*. Freiburg 1978, 38: *Bekenntnisse*, 59. San Iñazioak dagi emen berba; baiña Rahner'en gogoia da). Ixiltasun ori ez da besterik Jaungoikoaren misterioa bera baiño, bere ulerteziña, barruan artzen gaitun artu-eziña. Dana amaitzen da ixiltasunean, dana amaitzen da misterioan. Eta gizonaren partez, dana amaitzen da adoraziñoan eta norbera-emotean.

«Azkenean esku utsik doa bat, badakit; baiña ondo dago olan. Orduan begitu Jesus Krutzekoari eta joan. Datorrena Jaungoikoaren betiko ulerteziña da» (*Gespräch II*, 179).

Luis Arostegi